

JARDUERAREN IZENA

- ALDAKETA METODOLOGIKOA EUSKADIKO LANBIDE HEZIKETAN

KODEA

UI18_09

IRAUPENA:30 H

LEKUA:TKNIKA

ZAMALBIDE AUZOA / ERRENTERIA

HASIERAKO EGUNA: 2018-06-25

AMAIERAKO EGUNA:2018-06-29

PLAZA KOPURUA: GUTXIENEZ 10 GEHIENEZ 20

HIZKUNTZA: GAZTELANIA

EGITARAUA

KONPETENTZIAK

Prestakuntza-ikastaro honen bidez, lanerako konpetentziak eskainiko zaizkie parte hartuko duten irakasleei, aldaketa metodologikora zuzendutako tetuinguru aktibo-kolaboratiboetan lan egin ahal izateko.

Horretarako, honako helburu orokor hauek finkatzen dira:

- Irakasleak ikaskuntza aktibo-kolaboratiborantz bideratzea, ikaskuntza horren ezaugarriak eta abantailak hautemanda.
- Lantaldeak sortzeko eta dinamizatzeko oinarrizko teknikak ezagutzea.
- Irakasleak ekintzaileak izatera eta ikaskuntza egoera berrien sortzaileak izatera bultzatzea.
- Ebaluazioa konpetentzien eboluziotzat hartzea.
- Komunikazio eta ebaluazio prozesuetan feedbacka zein garrantzitsua den ulertzea.
- LHko ikastetxeetan ekimen ekintzailea txertatzeko bideak erraztea.
- Euskadiko LHko ikastetxeek osatzen duten ekintzailatza ekosistemari buruzko oinarrizko ezagutzak transmititzea.
- Sormenari buruzko kontzeptuei, sortze prozesuari eta haren teknikei buruzko prestakuntza irakasleei eskaintzea.

EDUKIAK

Kultura ekintzailea

- Irakasletza ekintzailearen diseinua.
- Hezkuntzako praktika onak.

Ikaskuntza kolaboratiboaren oinarriak

- Ikaskuntza prozesua tetuinguru aktibo-kolaboratiboan.
- Zer da ikaskuntza?
- Ikaskuntza aktibo-kolaboratiboaren ezaugarriak
- Lantaldeak
- Zer da taldea?
- Lantaldeak sortzea.
- Taldekideen rolak.
- Taldeen dinamizazioa.

- Komunikazioa eta gatazken ebazpena.
- Komunikazioaren gakoak.
- Entzutea.
- Komunikazio mailak.

Gaitasun digitalak geletan

- Nondik gatoz?
- Nola aplikatu DIGCOMP testuinguru aktibo-kolaboratibo batean.
- Biltegi digitala.
- Jarduera digitalak.
- Konpetentzia digitalen ebaluazioa.

Erronketan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboa

- Erronka kontzeptua.
- Erronka baten dinamika: 11 pausoak.
- Birprogramazioa.

Sorkuntza prozesuak-Sormenezko pentsamendua

- Fokuak definitzea eta birformulatzea.
- Pentsamendu dibergentea abian jartzea. Ideia asko eta askotarikoak sortzea.
- Ideiak baloratzea, iragaztea eta hautatzea.

Konpetentzien bidezko ebaluazioa

- Ebaluazioa eboluzio gisa.
- Ebaluazioko protagonistak.
- Feedbacka.

METODOLOGIA

Metodologia aktibo-kolaboratiboa erabiliko da.

1.eguna: 2018ko ekainaren 25a

- Harrera eta ikastaroaren aurkezpena.
- Tknikaren aurkezpena.
- Lanbide Heziketako esparru orokorra Euskadin.
- Erronketan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboaren testuingurua.
- Kultura ekintzailea.

2.eguna: 2018ko ekainaren 26a

- Ikaskuntza kolaboratiboa.
- Konpetentzia digitalak testuinguru aktibo-kolaboratiboan.

3.eguna: 2018ko ekainaren 27a

- Erronketan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboa.

4.eguna: 2018ko ekainaren 28a

- Erronketan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboa.
- Sorkuntza prozesuak.

5.eguna: 2018ko ekainaren 29a

- Konpetentzien bidezko ebaluazioa.
- Kurtsoaren itxiera eta diplomen banaketa.

EBALUAZIOA

Ikaslea ebaluatzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Parte hartzaileek orduen % 90 (presentzialak edo/eta ez-presentzialak) bete behar dute, gutxienez.
 - Parte hartzaileek prestakuntza jarduerako dinamika, ariketa eta praktika guztiak egin behar dituzte.
-

BALDINTZAK

Ikastarora matrikulatzen den pertsonak honako irizpideetako bat bete beharko du:

- Lanbide Heziketako irakaslea izatea
 - Lanean, ikastaroan aurkezten diren edukien inguruan lan egiten duen persona izatea eta aurrez beharrezkoak diren oinarrizko ezagutzak izatea.
-

PARTE HARTZAILEAK AUKERATZEKO IRIZPIDEAK

- Izen-emateak, eskainitako plaza kopurua gainditzen badu, ikasle hautaketa izen-emate ordena jarraituz egingo da.
 - Plaza kopurua honako proportzioak kontutan hartuz banatuko dira:
 - Beste erkidegoetako LH irakasleak eta enpresako langileak: plazen %80.
 - EAEko LHko irakaslegoa: plazen %20.
-

IZEN EMATE DATAK

Izen-emate datak:

- Plaza kopurua: 15 (gutxienez 10 pertsona / gehienez 15 pertsona)
- Izena emateko azken eguna: 2018ko ekainaren 8a
- Ebazpena: 2018ko ekainaren 11. Izena eman duten guztiei adieraziko zaie, posta elektronikoaren bitartez, ikastaroan onartuak edo itxaron zerrendan geratu diren.
- Matrikula ordaintzeko azken eguna: 2018ko ekainaren 18a
- Matrikularen kostua: 450€